



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO URRIAREN 31N
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palaciosok eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA: 2017/10/10EKO BILKURA.

Batzarkideek, 2017ko urriaren 10eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- 2017KO KULTURAKO HAINBAT DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

Espedienteak: Jexux Artze Kultur Elkarte (KE.01/2017-0087)

Ikusirik


2017ko otsailaren 13an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko ekainaren 20an egindako bilkuran, 2017eko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, elkarte honek hainbat ekintza antolatzeke emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu du:

Jexux Artze Kultur Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
17. Txalapartariak eta "Esku harriak, Oteizaren (h)aria" ikuskizun	2.211,54 €	1.658,66 €	Gastua: 2.060,00 € + 18. ekintzako soberakina 151,54€ Guztira gastua: 2.211,54 €	552,88 €
18. "Itzal zaunka" kontzertu irudikatua	2.213,40 €	1.660,05 €	Gastua: 3.007,92 € Sarrerak: 544,00 € Guztira gastua: 2.463,92 € Soberakina: 250,52 €	553,35 €
19. "Jainko basatia"	2.762,10 €	2.071,58 €	Gastua: 3630,00 €	569,40 €



Usurbilgo Udala

antzezlan			Sarrerak: 1.088,00 € Guztira gastua: 2.542,00 € + 18. ekintzako soberakina: 98,98€ Guztira gastua: 2.640,98€ 2.zatia ordaindu beharrekoa: 2640,98€ - 2.071,58€	
				Guztira
				1.675,63 €

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2017an kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2017/02/13).
- 2017ko diru-laguntzen behin behineko ebazpena (GAO, 2017/05/30)
- 2017ko diru-laguntzen behin betiko ebazpena (GAO, 2017/07/17)
- Kontu hartzailearen ziurtagiria
- Kultura Teknikariaren txostena

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Honako eskatzaileari kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintzak	Ordainketa
Jexux Artze Kultur Elkarte	17,18,19	1.675,63 €

Bigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2017 (A 13/2017)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.